


HAURTZARO MENDI TALDEA

2025-2026
IKASTURTEA



Otsailak 22

HAURTZARO MENDI TALDEAren irteera: MUNUANDI

- **Eguna:** otsailak 22, igandea.
- **Irteera:** 09:00etan ikastolako aparkalekutik.
- **Itzulera:** 13:00ak aldera.
- **Ibilbidea:** Ikastolako aparkalekutik bidegorria jaitsiko gara Zurko bidetik eta Araneder zubia igarota GI-3631 errepidera iritsiko gara. Kontu handiz gurutzatuko dugu Bidezarra hartzeko eta lehenengo bidegurutzean eskuinera joko dugu Garmendi txikitik barrena Zerradi industria gunera joateko. Arbide erreka zeharkatu eta ezkerretara egingo dugu Portugal bidea hartzeko eta berehala eskuinera irteten den bidexkan gora joko dugu berriro Portugal bidearekin bat egiten duen bidegurutzeraino. Bertatik eskuinera joko dugu Munuandiko gurutzeraino eta bertan hamaiketako egin ondoren, etorritako bide beretik Portugal bidera itzuliko gara Lur Garden aldera abiatzeko. Bertako aparkalekutik gora doan bidezidorretik Sarobe erreka bidera igoko gara eskubirantz joateko eta lehenengo bidegurutzean ezkerretara joko dugu Oiartzabal bidean gora. Olazitik Garaño iturrira jaitsi eta ezkererantz Iturriotza iritsiko gara, eta Tronpeo maldan gora, bueltan Ikastolako aparkalekura itzuliko gara.



Izen ematea: <https://forms.gle/i6FC8TheQXwGJMvq9>

Epea: otsailak 19, osteguna, 17:00ak arte.

OHARRAK:

1. LH3tik gorako ikasleek izango dute irteeretara etortzeko aukera.
2. Eraman beharrekoak: arropa eta oinetako egokiak, zira, hamaiketako eta ura.
3. Eguraldiarengatik aldaketarik egin beharko balitz, Mendi Taldeak bere esku hartuko luke eginkizuna.
4. Azken orduko ezusteetarako telefonoak: Mikel 697293095 eta Lorena 679358740.
5. Mendi taldearen urteko irteeren informazioa eta irteeren argazkiak: www.hurtzaroikastola.eus



Hurtzaro Ikastolako Mendi Taldea